

Ilargiaren alde izkutua

Ezustean harrapatu ditu Clementine zundak Ilargiaren maitaleak. Literatura eta zientzi fikzioaren pasarterik liluragarrienak sorrarazi duen ilargiaren alde izkutua mapa zehatz batean isladatzea lortu dute. EEBBetatik bidalitako Clementine zundak haren berri igorri du jadanik NASA erakundera. Ezusterik handiena, or-


lazko Udaberriari hasita, 70 egunetako bisaldia burutu zuen Clementinek Ilargian eta oraintxu kaleratu da bertan jasotakoaren berria. Bere aurretik beste zunda asko bidali bada ere, Clementinek bildu eta igorri dituen datuak osatuenak direla diote NASAko ikerlariak. Besteak beste, Ilargian dagoen altituderik handiena 16 kilometrokoa dela jakin ahal izan da, Apollo-k duela 20 bat urte igorritako datuak -11 edo 12 kilometroko altitu-

ez zen proportziotan hain zuzen. Ilargiaren osaketari buruzko teoria asko alboratu beharoko dira aurkikuntza berriak direla medio. Gauzak horrela, Ilargiaren alde izkutua liluragarria izaten jarraituko duela ez dago dudarik.

Zaborteirik handienaren komeriak

Zabor-pilaketa, horren aurrean gobernu desberdinek erakutsi duten axolagabekeria eta irtenbide-eza belaunaldi berriek "eskertu" beharko dizkiguten opariak dira. Inguaruari begiratzea nahikoa da arazoaz jabetzeko. Aitzitik, ikusten ez den zaborra arazo larria bilakatu da. Espazioan, gure buruaren gainean jira-bira ari den zabor-kantitateaz ohartuko bagina, batek baino gehiagok bat egingo luke Asterixen herriko buruzagiak hitzetik hortzera erabiltzen zuen leloarekin. Auskalo ez ote zaigun, zerua ez baino, espazioan urteetan pilatu den zaborra gure buruaren gainera eroriko. Espaziuntziek edo espaziuntzietako tripulariek sorrarazten omen dute zabor-kantitate handiena espazioan. Honez gain, sateliteetan edo estazio iraunkorretan egin ohi diren konponketa-lanak arras poluitzaileak dira. Hau guztiaren ondorioz, espazioa zabortege itzela

bilakatu ei da. Arazoa ekologikoa bada ere, estrategia militarrekin badu zerikusi zuzena. Espazioan zehar barreiatu-riko zaborrak sekulako triskantza eragin dezake espaziuntziak edo sateliteak joko balitu. Dakigunez, ez litzateke era honetako lehen "istripua" izango. EEBBetako ikerketa- eta segimenduzentruetan 10 cm-ko objektuak lokaliza daitezke. Erradarrez lekutzen dira objektu hauek eta hauen neurriak, portaera eta norabidea sailkatu egiten dituzte. Sailkatu-riko objektuetarik bat satelite edo espaziuntzietara hurbiltzen denean, norabidea aldatzeko agindua jasotzen dute automatikoki, istripua saihestearren. Zaila da, ordea, 10 cm-ko neurria ez duten objektuak detektatzea. Ikerlarien ustez, une honetan fitxatu gabe dauden 15.000 objektu txiki dabilta noraezean espazioan. Hauek ikusi ahal izateko, espazioan finkaturiko erradarrak neurri txikietara egokitu beharoko dira. Horretarako, Otsailaren hasieran erradarrak kalibratzeko erabiliko dituzten pieza txikiak jaurti zituzten espaziora. Pieza hauek hiru bolatxo txiki -15 eta 5 cm bitartekoak- eta hauek inguratzen dituzten hari meheak dira. Erradarren aurrean kokaraziko dituzte elementu txiki hauek erradarrak eta gainerako lokalizazio-sistemak egokitu ahal izateko.



Ilargiaren alde izkutuan Eguzki Sistemari orain arte aurkitu den sumendirik handiena eta sakonena atzeman dute. 2.500 kilometroko diametroko zirkunferentzia du eta 13 kilometroko sakonera.

de-aldea zegoela ziote-nak zuzenduz. NASAko ikerlariak diotenez, orain dela 4,3 bilioi urte sortu zen sumendia, South Pole-Aitken Crater izenez bataiatu dutena. Ustedenez, berebiziko inpaktua gertatu zen orduan eta horren ondorio lirateke aurkikuntza berria eta bere inguruan aurkitu dituzten zuloak. Hauek ikertzeak, ordea, luze joko du, era askotakoak eta ezaugarri desberdinekoak baitira. Sumendiaren goiko aldean burdina eta magnesioa kantitate handitan aurkitu dute, Ilargiari orain arte ezagutzen

dea, Clementinek igorritako datuak aztertu dituzten ikerlariak hartu dute: Ilargiaren alde izkutuan Eguzki Sistemari orain arte aurkitu den sumendirik handiena eta sakonena atzeman dute. 2.500 kilometroko diametroko zirkunferentzia du eta 13 kilometroko sakonera, horixe da orain arte Ilargiak isilean gorde duen sekretu bikaina.